

Egunon guztioi.



Gauzak ez dira inoiz hutsetik hasten.

Are eta gutxiago gurea bezalako hizkuntza txiki baten etxea eraikitzen ari garenean.

Euskararen erabilera normalduaren esparru naturalak topatzea eta zabaltzea denon eginkizuna da.

Eginkizun horretan, aurrekoek egin dutenaren eta gu-geu egiten joan garenen zordun gara.

Zorionez, gero eta gehiago bizi gara euskaraz.

Baita Ertzaintzan ere.

Baina, gaur, aurrera begiratzeko eguna da.

Ekinaren ekinez, ibilian ibiliz sortzen eta lantzen dira aukerak.



Eta gaur, behin berritan, aukera horiek ikusteko eta azaltzeko eguna da.

Horretarako landu dugu Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren. Plana.

Ez gara, noski, gu bakarrik.

Ertzaintzan euskararen erabilera normaltzeko bigarren plan hau, Jaurlaritzaren bost urteko plangintzaldi zabal baten barruan kokatzen da.

Lehendik eginaren gainean, aurretik eraikitako oinarrietan sendotu eta aurrera egiteko lanabesa da.

Euskararen erabilerari bultzada indartsua ematea da plan honen helburua.

Herritar euskaldunekin izan ohi ditugun harremanetan gero eta euskaldunago izaten joateko bidea erakusten digu.

Ertzaintzan ere, euskararen erabilerari gero eta erraztasun gehiago ematea bilatzen du.

Euskararen etxea eta elkarbizitzaren etxea eraikitzen jarraitzeko moduak eta bitartekoak finkatu eta sendotu nahi ditu.

Badakigu. Ez da lan makala.

Ez da orain arte izan, eta ez da izango lan erraza hemendik aurrera ere.

Ez da hizkuntza baten etxea gauetik goizera eraikitzen.

Ondo asko daki hori euskal gizarteak.

Esperientzia pertsonaletik ondo asko dakit nik neuk ere zailtasunen berri.



Ertzaintzak berak eta zeuek pertsonalki daukazuen esperientziatik ere bai.

Zuentzat, bereziki, ez dira oraintsu arte eginkizunok errazak izan.

Baina hori da bidea:

Ertzaintzak ere gero eta euskaldunagoa izan behar du, herritargoa gero eta euskaldunagoa den bezala.

Pausoz pausoz.

Planifikazioak martxan jarritz.

Helburu eragingarriak eta lorgarriak lehenetsiz.

Egindakoa aztertuz.

Zailtasuenen aurrean elkar lagunduz.

Con este espíritu realista, con esa función práctica y colaborativa os presentamos hoy el II Plan de Normalización del uso del Euskara en la Ertzaintza.

Un plan que responde a los objetivos estratégicos del Plan General de Normalización del Uso del Euskera del Gobierno Vasco en el sexto periodo de planificación, 2018-2022.

¿En qué dirección estamos caminando?

Con un objetivo claro: que en las relaciones habituales con la ciudadanía euskaldun cada día seamos más euskaldunes.

Con actitudes proactivas y realistas.

Combinando talante y talento.

Procurando que el euskara también sea lengua habitual en los procedimientos de trabajo que así lo requieran.

Y, evidentemente, procurando, siempre, que, en las relaciones interpersonales entre compañeros y compañeras, en vuestra relación personal y profesional con los equipos de vuestras unidades, su uso, el uso del euskara, encuentre vías naturales de comunicación y normalización.

Las nuevas generaciones que se están incorporando ahora nos ofrecen una oportunidad inestimable.

El euskara poco a poco está ganando y seguirá ganando terreno, irá consolidando un estatus de lengua normalizada.

Ese es el objetivo del plan.

No es sencillo.



Pero siempre se trabaja mejor cuando nos fijamos objetivos, evaluamos lo que vamos haciendo, somos realistas, disfrutamos de los logros, por mínimos que sean, y aceptamos los cambios.

Confío en que esta presentación, nos sirva, para recordarnos y para hacernos un poco más conscientes de que la casa del euskara, la casa de la convivencia es un proyecto colectivo en construcción de toda la sociedad vasca.

Y, por tanto, también nuestro.

Porque somos parte de ese proyecto compartido de la sociedad vasca,

porque somos una parte importante de los servicios públicos de nuestra administración,

siendo, como somos, servidores y servidoras de la seguridad pública de Euskadi por el bien de toda la ciudadanía.